

Nafarroa

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko martxoak 19 / III. urtea / 67. zenbakia



Iragan ahaztua

Historia etorkizuna hobeki asmatzeko iragana aztertzen duen zientzia dela diote historia liburuek, baina nafarrek ez dugu, nonbait, oso etorkizun itxaropentsurik. Historia oparoko lurraldea da hau, erresumak, jauntxoak, gerrak eta inbasioak, foruak, karlistadak, parlamentuak eta lehendakariak, ia ezagutu daitekeen guztia ezagutu duena, baina egun ondasun ikaragarri hori atzetzeko bidean dagoela diote historialari zenbaitek.

«Nafarroa historiarik gabe gelditzen ari da». Historialari famatuak esandakoa ez dute ukatzen hainbat urtetan nagusi izan den ildo ofizialetik kanpo dauden historialariek, eta

Nafarroan Historia fakultate publikoa osatu beharra azpimarratzen dute. Beren ustetan, hutsuneak nabarmenak dira zenbait garaitan, eta beste arlo asko ez daude behar bezala ikerituta. Gainera, dena unibertsitate pribatuaren eskuetan izateak sortu duen polarizazioak historia esentzialista eta, batzuetan, «beharrezkoa den seriotasunik gabea» eman duela diote kritikoeak.

Jeronimo de Útzariz Institutuak apurtu zuen, neurri batean, hegemonia hori, baina emaitzak ere ez dira denen gustukoak izan, ikerkuntza historikoak eskatzen duen baliabide eta denbora falta dela eta.

Amen eta omen



AINGERU EPALTZA

Kazetaritzak dituen alderdi nardagarri ugarien artean erakusgarri da Klinika Unibertsitarioaren aldean, hilurren ilustre baten inguruan eratu den zirkua. Odol-urdirik atsekabeteren bat bapatean agertu eta sarreratik igogailuraino dagoen tarte tikiak flas-hak keinu hori edo grabagailuak esaldi hura harrapatu ezik, aisa da imajinatzea komunikabideetako ordezkarien —ehundaka omen dira— asperdura eta etsipena, orduak orduei, egunak egunei eta ALBISTEA, haiek espero duten ALBISTEA, gertatzen ez dela ikusiz. Irakurle edo entzun-ikusle bat baino gehiago harri eta zur geldituko litzateke Iruñetik hain kronika solemne eta sentikorrek igortzen dituen kazetariak, mikrofonoa aldean ez duela Balberen esperoan dagoen jaun ilustrearen bizkar erraten dituen aipu nabar eta txiste beltzak aditu ahal izanez gero. Ez da prezioso gerla-korrespontsala izatea, larrua errinzero batena baino latzagoa edukitzeko. Aski dira bi-hiru urte zorioneko lanbide horretan.

Eta amaierarik gabe iduri duen goardialdi honek oinezko kazetari eta argazkilarien zainak altxatzeko puntadan baldin badago, zer erranik ez haien zuzendari eta buruena! Beren dokumentazio zerbitzuak itzulipurdikaturik, eginak dituzte jadanik delako jaun ilustreari bataio-ura jaurti zion apezaren izena ere orotarazten duten dossier dokumentalak, ALBISTEA gertatzen den unerako prest. Balbek, orde, alfer zikin horrek, jaun ilustrearen atean kaxak egin baina aitzina ez egin nahi oraindik. Astebetetik astebetera plazaratzen diren aldizkariak dossier horiek argitaratzen hasiak dira, tartean ALBISTEA, denek espero duten ALBISTEA, gertatu eta berandu ailega beldurrez. Gehienak goizegi ailegatzan ari dira.

Eta halaxe gure zirkua. Iruñeko jendea, loriain, hainbete bisitari inguruan ikusirik. Opuskoak, are gehiago, dohain egiten ari zaien publizitateagatik. Allí, sei kilo irabazi duela, domina diztiratsua banatu eta 'prentsa nazionalen' hainbete aldiz agertuta. Bertzeek aski lan dute lutozko arropa ponpoxak astean behin litzatzen eta diskurtso apainak erreparatzen. Zinez irringarria bere bizitzan gogaide nahiz kontrarioen artean traba baizik egin ez duen gizon batendako, baina badakizue 'mando hilari uzkitik oloa'. Lerro hauek idaztean, ALBISTEA oraindik gertatu ez bada ere.


Gure aukerak

Irunberriko Potxatik zehar

Irunberri, antzineko bizileku eta aztarna, Irati eta Zaraitzu bitarteko ibaietan altxatzen da. Iratik labana baten eran mozten du lurra bertan, zauri erraldoi baten gisan, eta azkenean, Liedenara heltzean, Pirinotako ibarren malkartasuna utzi eta Erriberako lasaitasunarekin konforme gelditzen da, Aragoan hiltzeko. Irunberriko Potxan bi tunelen bidez sartu daiteke, 50ko urteetan desagertu zen Irati trenarenak, hain zuzen ere.

Gaur proposatzen dugun Ibilbidea Irunberrietik ateratzen den potxarako bidean hasiko dugu, eta hortik ezkererantz ateratzen den lehendabiziko bidea hartu, mendi eta mahasti tartean. Bide hortik helduko gara Alzuetara, eta hortik jarraituz, Irunberri eta Liedena bitarteko bidea hartuko dugu. Ibai ondotik dagoeneko, lehen tunela aurkituko dugu ibilbidea hasi bezain pronto, eta ondoren, bigarrena, hasierako tokira heltzeko.

Potxa hau trenbidea sartu baino lehen ikutu gabe egon zela esan daiteke, soilik almadiak zeharkatzen baitzuten. Bertako harkaitzen artean hegazti eta harrapakari frankok paratzen dituzte kabiak. Ibilbide osoan zehar sastrakak eta espezi aromadunak aurkituko ditugu erruz, baina erromerorik ez dago, hau aisago



I bilbide osoan zehar sastrakak eta espezi aromadunak aurkituko ditugu erruz.

aurkitzen baita lehorragoak diren tokietan. Gogoratu behar inguru honetan eguzkiak jo, jo egiten duela, baina urteko 800 l/m2ko kopuruak jasotzen dira urte bakoitzeko.

Irunberri inon baino gehiago eutsi zitzaion ahuntzak izateari, eta bertako bizilagun bat herri osoko saldoez arduratzen zen. Gaur egun ohitura hori galdu egin

da, baina aspaldian izan zuen garrantzia oraindik antzeman daiteke inguru honetako begetazio aberatsean. Ibilbide osoan zehar, bestalde, fosil ugari aurki daitezke, baina bereziki gomendagarria da horretarako potxara damaigun jeitsiera hartzea. Nummulitesen maskorak aurkituko ditugu bertan, 60-40 milioi urte ingurukoak.

ASTEKO PERTSONAIAK




Iñaki Cabases
Politikaria

Euskararen Legea aldatzeko lan talde bat sortu zen pasa den urteko abenduan, UPN ezik beste alderdi guztien ordezkariekin. Atzerapen ugari izan ondoren, azkenean, pasa den asteartean bildu zen taldea, mahai gainean gai batzuk zeudelarik. Ordu t'erdia iraun zuen bilerak, eta bertan gai bat bakarrik eztabaidatu zen, 'euskara hezkuntza arloan' delakoa. Eta akordioa lortu zuten politikariek, adostasunez erabaki baitzuten zonalde ez euskaldunean euskarazko irakaskuntza eskaintzea, Iñaki Cabases EAKo ordezkariak komunikabideei esan zenez. Jakina denez, egungo Euskararen Legearen arabera, ezinezkoa da euskaraz ikastea eremu ez euskaldunean. Hurrengo bilera batean beste gai batzuei buruz mintzatuko dira.



Jose Javier Etxeberria
Zinegotzia

Iruñeko udalaren IU-EBaren zinegotzia den Jose Javier Etxeberriak euskararen aldeko proposamen batzuk aurkeztu zituen pasa den asteartean. Proposamen hauek beste alderdi politiko guztiei aurkeztuko dizkie, elkarren artean eztabaidatu eta zerbait egiteko. Proposamenekin hiru helburu bete nahi dituzte IUkoek: «euskararen normalizazioa arlo ofizialean eta gizarte mailan, hiritarren eskubideak bermatu euskara arloan, eta hizkuntz honen babesa eta garapena». Eskakizunen artean zera aipatu zuen: «udalak argitaratzen dituen idazki, bando, dokumentu eta publikoaren gaitasunak hartzen den informazioak euskaraz eta erderaz izan behar du». Halaber, udaletxeko lanpostuetarako euskarak puntuak edukitzea eskatu zuten.



Jacinto Argaña
Apezpiku-ohia

Valentzian, pasa den ostiral gauez hil zen apezpiku honen gorpua lurperatu zuten asteartean Donostiako Artzai Onaren katedralean. Bera da, hain zuzen ere, bertan lurperatu den hirugarren apezpikua, Jaime Font Andreu eta Lorenzo Bereziartua Balerdirekin. Jacinto Argaña Beran jaio zen 1903ko azaroaren 28an. Iruñean egin zen apaiz, eta Zarakastelu eta Iruñean egon zen, eta bertako seminarioaren burua ere. Ondoren izan zen Valentziako bikarioa, eta 1952an bertako apezpiku laguntzailea. 1957an Mondoñedo—Ferroleko apezpikua izendatu zuten, eta 1968an Donostiara joan zen, 1979ra arte. Donostiako mezan Tagliaferri Nuntzioa eta Zirarda artzpezpikua egon ziren, besteak beste.

ERAKUSKETAK



Jose Maria Arce Iruñeko errestituradorearen lanak ikus daitezke datorren martxoaren 28a arte Rodezno Konte kalean Aurrezki Kutxa Munizipalak duen aretoan. Lan egunetan goizean eta jai egunetan arratsaldean dago zabalik erakusketa.

Javier Santurtun artistaren erakusketa zabalik dago Iruñean datorren apirilaren 4a arte, Lan Kide Aurrezki Kutxak Sarasate ibilbidean duen aretoan. Barakaldon jaiotako artista honen lanak ikusteko lan egunetan arratsaldean eta jai egunetan goizean joatea besterik ez dago.

Jose Javier Eslava argazkilariren erakusketa ikusgai dago Tafallako Kultur Etxearen aretoan, martxoaren 31a arte. Erakusketa herriko Kultur Patronatoak eta Higuera Argazkilarien Elkarteak antolatu dute.

IKASTAROAK



Fondoko eski ikastaroak egin daitezke Aralarren abenduaren 1etik martxoaren 28a bitartean, Larraungo udalak antolatutik. Ordutegia 9,30etatik 13,30etara izango da. Bi modalitate daude, 'Aste Zuria' eskola-koentzat, 4.800 pezetatik, eta 'Bi asteburu' helduentzat, materialik 6.700 pezetatik eta materialik gabe 4.800etan. Izena Leunberriko Kirol Bulegoan.

MENDI IRTEERAK



Aitzgorri mendia ezagutu nahi duenak aparteko aukera dauka igande honetan, martxoak 21, Iratxo Mendi Elkarteak bertarainoko ibilaldia antolatu baitu. Apuntatu nahi duenak edo informazio gehiago lortu, 50 08 82 telefonora deitu besterik ez du.

Aragues del Puerto-Candanchu mendi ibilbidea antolatu du igande honetarako, martxoak 21, Nafarroa Kirol Elkarteak. Ateraldia mendi eskiz egingen da eta egun osorako da. Informazio gehiago nahiez gero, Elkarteak Jarauta kalean duen aretoa jo behar da.

BERTSO SAIOA



Jon Sarasua, Manolo Arozeña, Angel Mari Peñagarikano, Iñaki Murua, Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariak arituko dira datorren asteazkenean Aita SAlestarren aretoan. Korrika dela eta, antolatutako ekitaldien artean bertso saioa dago. Emanaldia arratsaldeko 8.00etan hasiko da.

AHAZTU GABE!

'ARTISTAK EUSKARAREN ALDE' izeneko erakusketa ikusgai dago Iruñeko Arrotxapeako Juslarotxa Kultur Etxean, martxoaren 26an hasi eta apirilaren 4an bukatuko den zortzigarren Korrikaren antolatzailearen eskutik. Astelehenera ostiralera, arratsaldeko 6etatik 9etara eta larunbat eta igandeetan, goizeko 11etatik eguerdiko 2etara, Xabi Otero, Xabier Morras, Xabier Idoate, Xabier Villareal, Angela Moreno, Juan Luis Mayor, Teresa Salvate, Isabel Bakedano, Ester Fernandez, Joxe Ulibarrena, Txaro Navarria, Javier Bidaurre, Xabier Balda, Sagario Armendariz, Blancanieves, Koke Ardaiz, Joaquin Resano eta Ernesto Murillo izango dira bertan. Hau izan da, hain zuzen ere, artistarengandik sortutako ideia, eta beraien osatu dute erakusketa, Fernando Barrena Korrikaren koordinatzaileak adierazi duenez. Halaber, euskararen inguruan Bideo eta Argazki erakusketa izango da ikusgai Zaldiko Maldiko euskaltokian hilak 26 arte, Korrikaren zortzigarren edizioa Iruñetik abiatuko den arte. Ekintza guzti hauek Alde Zaharreko Korrika Batzordeak antolatu ditu.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, 30 **seme-alaba Nafarroako**. Elkarrizketak.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz**, Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

'XINGULI-MANGULU', Euskalerria Irratiak

larunbat goizero egiten duen programa entzuteko aukera izanen dugu bihar, 9.00etan hasi eta 10.00ak arte. Ohizkoa denez, hurrek telefonoz zuzenean hitzgingo dute, eta bihar Xake jokalaria gazteak egonen dira irratan, Paz de Ziganda ikastolakoak. Bestalde, datorren astelehenera 'Zokobetailu' programan udaberriari buruzko saio berezia egingen dute.

Baztan-Bidasoa



Turismoa eta natura uztartzeko asmoa dauka Partzuergoak.

AITOR BAYO



ALTSASUn emandako prentsaurrekoan Sakana osoan bizi den langabezi egoerari aurre egiteko kanpainia aurkeztu zuen joan den astean ELA sindikatuak. Inguru honek Nafarroako langabezi kopururik altuenetakoa dauka, % 20 hain zuzen, eta egoerak okerrera egin dezake luze gabe, zenbait enpresa nagusitako krisia dela eta. Sindikatuen ordezkariak azaldu zutenenez, Sunsundegi enpresak, inguruko handienetakoa, 80 bat lanpostu kendu ditu, eta Lakuntzan hiru lantegi —Sakana Kooperatiba, Industrial Barranquesa eta Fundiola— krisi larrian daude. Halaber, Olaztiko porlandegiak, inguruko enpresa nagusiak, ekoizpena murriztuko duela iragarri du, beraz horren inguruan dauden enpresei kalteak ekarriko dizkie erabakiak.

TUTERAK arrazismoaren kontrako kanpaina burutu berri du, Gurutze Gorria, SOS Arrazismoa, UGT eta AMIMET taldeen partaidetzarekin. Horren bidez, gero eta zabaltzen ari den arrazakeria dela eta, irtenbideak eta informazioa ematea zen helburua, tuterar eta inguruko herritar guztien kontzientziazioa lortu ahal izateko. Kanpaina bukatuta emaitzak positiboak izan badira ere, aurrerantzean horrelako ekintzak egiten jarraitzeko nahia azaldu zuten talde horietako ordezkariak.



IZABAko dermionan dagoen Belabarze ibarran Opus Dei bere aterbea berri eta handitzeko lanak egiten ari dela salatu berri du Gazte Izabarrak taldeak. Lurrak 'eraiki ezinezko' kalifikazioa baldin badauka ere, baita ere, aska izabako alkateak berak, arkitektoaren onespenerekin, eman zuela salatu du taldeak eta horren aurka errekutso aurkeztu. Nafarroako Unibertsitatearen aterbe hiru solairu berri eraikitzeko asmoa dago, Udalean sartu den txostenaren arabera, eta osagai gisa agertzen bada ere, eraikin osoak aterbe berriaren antza hartuko zukeela salatu du Gazte Izabarrak taldeak. Izabako Hiri Antolamendurako Egitasmo Nagusiak azaltzen duenez, bertan dauden eraikinak soilik nekazaritza eta abeltzaintzarekin lotutako jarduerak hobetzeko berri edo handitu ahal izango dira.

Turismo Partzuergoa Bilbora

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Bertizko Turismo Partzuergoak Bilboko Turismo Erakustazokara joateko asmoa dauka, bertan alde osoko ezaugarriak azaltzeko. Izan ere, hauxe da berri-berritan sortutako elkarte honen asmo garrantzitsuenetakoa: Baztan-Bidasoa inguruko ezaugarriak kanpoan ezagutaraztea. Imanol Luzuriaga Partzuergoaren lehendakariordea eta Donamariako Bentakoak azaldu duenez, «Euskal Herritik datozkigu gure bezeroen % 80 inguru eta hori zaindu nahi dugu bereziki».

Azoka eta turismo topaketa hauetan behar bezala aritzeko Partzuergoak duela gutxi atera zituen lehiaketara elkartearen kudeaketa lanak, eta bertara hiru enpresa aurkeztu ziren: Servitur, Iñigo Bodía eta ACIS S.A. Azkenean honek eskuratu du kontratua, eta joan den astean izan zen Turismoa kontseilariarekin lehendabiziko bilera, dauden egitasmoak azaltzeko.

Bertizko Partzuergoa pasa den abendu 29an osatu zen, eta bertan inguruko 21 udalak, hotel, ostatu, jatetxe, taberna eta dendak elkartuak, eta Landetxetako Elkarteak daude bilduta, eskaintza turistiko bateratua eman ahal izateko. Bertan arlo honetako gehienak daude bilduta, baina badaude erantzun hobea izan duten arloak, Luzuriagak azaldukoaren arabera. «Landetxetan % 100



Inguru osoko partaideak daude elkartearen.

izango dira elkartearen, ostatuaren artean % 90 inguru, eta jatetxearen artean % 75». Taberna eta dendetan asko jaisten da kopurua, baina hori «normala» dela dio Luzuriagak, «gu baikara gurditik tira egin behar dugunok. Beste asko, itsasontziak aurrera egiten duen zain daude». Partzuergoaren helburu nagusia, egun, aldea 'turistikoki aparta' izenda deza-

ten da, eta mamitzen ari diren asmoak Fitur Turismo Azoka eta Cederna-Garalur Elkarteari aurkeztu nahi dizkiete.

Egun, partzuergoak Batzarre Orokorrak eta Administrazio Kontseilu batek osatzen dute. Lehendabizikoan 41 kidek daukate hitza —21 udalekoak, eta elkarte bakoitzeko 4 kide—, eta bigarrena 12 pertsonen osatua dago

—sei udalekoak eta gainontzeak elkarte presidentek—. Luzuriagak azaldu duenez, inguru gure lurraldetik kanpo ezagutzera emaztea eta barruan profesionaltasuna zabaltzea dira asmoak, baina garbi daukate hau ez dela «irtenbide magikoa» aldearendako. «Industria gehiago ez da etorriko, hori garbi dago, baina turismoak ez du zergatik izan behar industriaren senide pobrea. Hemen, jendeak badaki hau ez dela alde osoaren sostengua izango, baina lagungarria eta ona izan daiteke denentzat».

BIDASOA KULTUR ZERBITZUAK

Aspaldi honetan Baztan-Bidasoan turismoa eta garapen orekatu eta naturala bultzatzeko asmoa sendo errotu da, eta Partzuergo honi iragan hilean gehitu zitzaion Bidasoa Kultur Zerbitzuak izeneko elkarteak, kultura eta turismoa elkartzeko egitasmoa. Historikoki alde osoak emigrazio handia pairatu duela kontuan harturik, eta ikusirik industriari ere —mende honen erditik hona ekonomia osoaren sostengu eta nekazaritza eta abeltzaintzaren ordezkaria— garai latzak heldu zaizkiola, «hemen dauden baliabideak arrazionalki eta oreka hautsi gabe ustiatzeko modu bakarra da bertakoek lantzea». Hori dela eta, elkarteak ustiapenak bertako esku jarraitu dezan aldarrikatu nahi du egitasmo orotan.



Nafarroako historiografia, hau da, gertaera eta bilakaera historikoa aztertu eta interpretatzen duen zientzia, franko eztabaidatua da egun lurraldean ezezik, mugetik kanpo ere. Orain arte unibertsitate pribatuak menderatuta, gaien tratamendua eta horrek sortu duen kontrako jarrerak banandu egin ditu historialariak.

Nafarroa, historiari gabe?

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑA

Eneko Aritzari, Iruñeko lehendabiziko jaunari, errege deitu zioten estreineko unetik 12 mende luze pasa direnean, inoiz baino eztabaida gehiago sortzen ditu Nafarroari buruzko historia korapilatsuak. Erregeak, konkistak, foruak, karlistadak, gerrak, demokrazia, parlamentuak, lehendakariak... pasadizo eta gertakari franko eta oparoak, baina, nonbait, oraindik ondo aztertu gabeak. Kritika historikoa herri baten iragana aztertzea etorkizuna hobeki asmatu eta ulertzeko dela diote historia liburuek, eta etorkizuna oraindik asmatzeko ote daukagun galdetzen diete beren buruari gure lurraldeko historialari frankok, azken urteotako historia bera dela eta.

Mende honetako azken urteotan, eta inguruko lurralde guztietan horrelako trantzeak aspaldian gaudituta badauzkate ere, oso historia lerratu baten ondasuna baino ez daukagu iragana ulertu ahal izateko. Nafarroako Unibertsitate pribatuak zeharo menderatu eta bereganatu zituen duela gutxi arte azterketa eta metodologia guztiak, eta hortik kanpo gelditu direnak kexu dira emaitzaz. Ondorioz sortu zen erreak-

zioa duela zazpi urte mamitu zen Geronimo de Uztariz Institutuan, Erresuma Zaharreko azken hiru mendeotako historiaren azterketan sumatzen zuten hutsunea bete nahian, «ikuspegi berritzaile eta kritikoaren bidez», eta ohizko historiak ukitzen ez zituen gaiak jorrateari eman zioten lehentasuna. Emaitzak baina, ez dira denen gustukoak izan.

«INPARTZIALITATEA LORTZEN AHALEGINDU»

«Nafarroako historialariak oso esentzialistak izan dira beti, eta saiatu izan dira beste aroak gure ikuspuntuetatik konprenitzen. Hori ez da posible». Xabier Zabaltza historialari eta itzultzailearen ustetan, Geronimo de Uztariz Institutuko kidea bera ere, Nafarroako gizarteak bizi duen polarizazioari leporatzen dio Nafarroak historia kas-karra edukitzearen errua. «Duela bostehun urte ez zen ez euskal, ez nafar, ez espainol izatearen kontzientziarik. Horiek gero sartu ziren. Beraz, hortik ateratzea egiazko euskaldunak, edo espainolak, ez da serioa. Inpartzialitatea lortzen ahalegindu behar da».



Tuterar honen ustetan, unibertsitate publiko baten beharra ukaezina da egoerari buelta emateko, «Nafarroako Unibertsitatearen osagarria izateko eta gaiak behar-beharrezko zaigun seriotasunaz tratatzeko», eta bat dator Nafarroa historiari gabe gelditzen ari den zenbait historialariengan nagusitu den ideiarekin. «Espainia eta Euskal Herriko historia egiten ari gara, baina ez Nafarroakoa».

UNIBERTSITATE PUBLIKORIK EZA

Angel Garcia Sanz Nafarroako Unibertsitate Publikoaren (NUP) Geografia eta Historia Departamen-

tuaren zuzendariaren ustetan, lurralde honetako historiak dituen hutsuneak nabariak eta oso garrantzitsuak dira. «Badaude arreta piztu duten garaiak, hala nola Erdi Aroa eta erresumaren bilakaera, baina beste garai batzuk, oso garrantzitsuak, aztertu gabe daude. Adibidez, Isabel II, XIX. mendea Nafarroako gizerte egitura, Hirugarren Karlistada... Horrelako hutsuneak normalak izaten dira beste lurraldetan ere, baina hemen ez da izan horretaz arduratu den unibertsitaterik».

Irakasle honek azaldu duenez, azken hamar urteotan aldatu egin da unibertsitate publikoaren jarrera, eta gehiago sakondu da gizartearen oinarrietan, baina gizartearen beraren eragina onartzen du historialariengan egoera bitxi honetan. «Nor bere garairen seme edo alaba da, eta zentsura handia eta arazo franko izan dira zenbait gai aztertu ahal izateko. Historialari ofizialek mota guztietako erraztasunak izan dituzten bitartean, besteok iluntasunean egin dugu lan, animo handiz baina baliabide gutxirekin». Nafarroa historia arloan umezurtz denentz galdera egin zaionean ere «zerbait badagoela» uste du, baina kanpoan dauden historialari nafarren lana azpimarratu du. «Nafarroatik kanpoko unibertsitateetan lan handia egiten ari da, baina jakina, horrela ez dira sortzen proiektu orokorrak, eta ezin dira lehentasunak markatu».

TESI ASKO KALITATE GUTXI

Iosu Chueca da Nafarroatik kanpo lan egiten duen historialari horietako bat. Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea, oso kritikoa azaldu da unibertsitate pribatuetatik egin-

dako lanari buruz. «Orain dela 7 urte arte oso lan makalak egin dira unibertsitatean: tesi asko, alegia, baina kalitate gutxiok. Ondoren sartu zen jende gaztea eta prestatuagoa, eta zerbait aldatu da, ildo berriak jorratu dira, baina ikuspuntu berberatik, beti ere».

Bere ustetan, Nafarroak historialari asko ditu, eta historiografia garatzen ari da, «baina hemengo erakundeetatik kanpo garatzen ari da». Horrek dakarren arriskurik nagusia lan horiek ezagutzeko zailtasuna dela dio Chuecak. «Baliabideak eta jendea Opuseko unibertsitatean dago, eta gure lanek, azkenean, ez dute inolako eraginik. Nire tesiak, adibidez, ez du eraginik izango Nafarroako jendearengan, argitaratuta ere. Ni bezala dauden beste irakasle asko badaude, nahiz eta azken urteotan batzuk NUPra itzuli diren, eta horregatik, Nafarroa historiari gabe gelditzen ari den esaldi horrek bere esanahia dauka. Kontua da historiografiá noren esku dagoen».


Historialari nafarrak adierazi duenez, polarizazioak eragina badauka, izan, lanen kalitatean, «Julio Caro Barojaren esaldia hartuz, historia *ad probandum* egiten ari baikara. Hau da, gaur egungo arazo politikoei indarra emateko idazten den historia». Eugenio Arraiza Eusko Ikaskuntzako ere iritzi berberakoa da. «Bi mutur oso nabariak daude, eta batek liburua ateratzen du, eta besteak erantzuna. Elkarte bat sortzen da, eta ondorio moduan, beste bat urtebeteren buruan».

Finean, Garcia Sainzek esan duen moduan, «unibertsitate publikoaren falta dela medio, horixe da dagoena».

● Antso VII Orreagako mausoleoan.



Historiarik gabe etorkizun iluna



● Nava-setako gudan ustez harriak ziren kateetako zatiak. (Nafarroako Jauregia).



● Antso VIIren zigiluak, berriki zizeldurik Orreagako mausoleoan.



«Beste fakultate bat balego...»

A. B. / IRUNEA

Nafarroan duela gutxi arte unibertsitate bakarra izateak, Opus Deiren eskuetan, eragin izugarria izan du historiografian, beste hainbat arlotan gertatu den bezala eta horren ondorioz arlo ofizialeatik soilik bultzatutako ildoan da bultzada eta laguntzak jaso dituenak. Horrek gaitzespen ugari sortu zuen beste profesionalen eta unibertsitateen artean, eta Fontana Historia katedradun espainiarrak 'eskola paranoikoa'

deitu zion behin Nafarroako Unibertsitatekoari.

Duela zazpi bat urtetik hona, baina, eta zenbait irakasle gazteren sarrerarekin—Ignacio Olabarri tartean—, ildo berriak jorratu dira, giza historiari gehiago erreparatu, baina aldaketa oraindik ere, ez du ildo ideologikoa aldatzeraino eraman.

Horren aurrean, aditu guztiek azpimarratu dute Unibertsitate Publikoaren (NUP) Historia Saila indartzeko beharra, hau da, fakultatea sortu beharra, baina

Nafarroa osoak eta UPNk berak dituen diru murrizketak direla eta, ez dirudi epe labur batean gauza daitekeenik. Egun soilik Historia eta Geografia Saila dago UPN-n, baina irakasle eskola, eta soziologiarekin nahastuta, eta hirugarren zikloko historiaren arloko programa bakarra dago: Historiografiaren iturri, metodo eta analisiak. «Krisia UPNra ere iristen ari da», aitortu du, etsita, Angel Garcia Sanzek, Geografia eta Historia Saileko zuzendariak. «fakultate bat balego...», azaldu

du Iosu Chueca Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak, «ildo metodologikoa zehaztu eta 30 bat urte barru, Nafarroako Historia bat izango genuke, beste ikuspuntu batetik».



GERONIMO DE UZTARIZ Hain zuzen ere, ikuspuntu berri hau bilatzeko sortu zen duela zazpi urte Geronimo de Uztariz Institutua. Hasiera oso jendetsua izan zen, Chuecak gogoratzen duen bezala, baina gero historiografiak berak bizi duen zatiketa ere izan zen bertan. «Kongresu baten ondorioz sortu zen institutua, eta bertara elkarte

guztiak gonbidatu genituen, baita Nafarroako Unibertsitatekoak ere. Hala ere, berehala bereiztu ziren, eta beren kongresua egin behar zutela iragarri zuten. Hortik sortu zen urtebeteren buruan Nafarroako Ikerketa Historikoen Elkartea.

Horrek nabarmendu egiten du historiaren zatiketa bi muturren artean, Eugenio Arraiza Eusko Ikaskuntzakoak dioenez, baina bien artean eztabaidari «eutsi egin diotela» dio Garcia Sainzek. «Uztarizek ahalegin asko bildu zituen hasieratik, eta ordur arte jorratu ez ziren gaiak ukitu zituen. Ikerketa Historikoen Elkarteak unibertsitate pribatuarekin harreman handiagoa dauka, baina ez da ere monolitikoa. Bi ikuspuntu ezberdinetatik lan egiten dute, eta hori ona da». Eusko Ikaskuntzak berak beste sail bat dauka Historiari zuzendua, eta bertan argitaratzen dira gai zenbait.

Azpimarratu, baina, denek azpimarratu egiten dute talde hauek ez dutela betetzen dagoen hutsunea. «Unibertsitateak azpiegiturak eta baliabideak dauka bere baitan», azaldu du Chuecak, «eta Nafarroan egiten ari den historia erakunde ofizialeatik kanpo dago egun».

● 1291an Gobernado-rea eta Erre-sumaren erakundearen arteko akordioa. (Nafarroako Artxi-bo Nagusia).



Gazteendako Zokoa

Belabeltza

Corvus corone
Zuhaitzetan bereziki
Nafarroan ugari
Oso ezaguna



Ustez erroia

Askotan nahasten da belabeltza erroiarekin, eta euskarazko izenak ere horretarako bide ematen du. Jende gehienak ezagutzen du belea hitza, baina ez horrenbeste erroia. Eta egia esanda, franko antzekoak dira, erroia handiagoa eta sendoagoa bada ere. Azterketa sakonagoa eginez gero, desberdintasun nabariak agertzen dira. Belabeltzak beti zuhaitzetan paratzen ditu kabiak, eta erroiak amildegiak nahiago ditu.

Beltza goitik behera, 45 zentimetroko zabalera dauka belabeltzak eta kilo erdi inguruko pisua. Askotan errepide inguruetan izaten da, kotxeek harrapatutakoa aprobeatzeko. Beti bikoteka edo talde txikitan, hegalaldi zuzena eta lasaia dauka. Esan bezala, zuhaitzetan paratzen ditu kabiak, eta mikarenetik desberdintzeko, bien artean dagoen altuerari erreparatu behar zaio —altuagoa mikarenak—.

Haratustela jaten du, baita harrak, barraskiloak, intsektu, narrazti, fruitu eta bikorrak ere. Nafarroan nahiko ugari da lurralde osoan, zuhaitzak izan bitartean, eta 1.600 metrotaraino hel daiteke. Hala ere, urriagoa da iparraldean eta hegoaldeko muturrean.



Noiz arte bizi behar ote dut?

GARBIÑE BERNAL

Nafarroako herri txiki batean oso gauza bitxia gertatu omen zen. Hori orain dela urte asko izan zen, gure aiton-amonak gazteak zirenean.

Herri hau Nafarroako iparraldean kokatuta zegoen, eta mendi artean gordeta zegoen. Bertako jendea oso pozik bizi zen, eta ia ez zen hirietara joaten. Ez zegoen auto edo traktoririk, eta herriak nora baitera irten nahi bazuten menditik joan behar izaten zuten, ez bait zegoen kamioirik garai haietan. Normalki, oinez edo mando baten gainean joaten ziren.

Auzoko herrian erreko lamia bat bizi omen zen, bere urrezko orrazi eta guzti. Ilea luzea zuen, gerriraino heltzen zitzaion, eta gorputz osoa zuria zuen. Hankak oiloarenak bezalakoak zituen. Jendeak oso maite zuen, berarengana joan eta noiz hil behar zuten asmatzen baitzien.

Lehenengo aipatu dizuedan herrian Balentino izeneko gizon bat bizi zen. Gizon honek noiz hil behar zuen jakin nahi zuen, baina, etxean zituen lanak zirela eta, ez zuen betarik harrapatzen Errekako andearengana joateko, eta galdera pare bat egiteko.

Egoera horretan denbora asko zeraman eta nazkatzen hasia zen

itxoiteaz. Goiz batez, oilarrak jo baino lehenago jeiki zen. Artilezko galtzerdiak eta larruzko zatak jantzi, kapela hartu eta mando gainean lamiarengantz abiatu zen.

Lamiarekin topo egin zuen eta honela mintzatu zitzaion herritarra:

—Arratsaldeon! Errekako anderea, galdera bat egin nahi nizuke nere buruari buruz.

—Aurrera. Galdeiezadazu nahi duzuna eta baldin badakit, erantzungo dizut gustu handiarekin.

—Noiz arte bizi behar dudakin jakin nahi nuke.

Lamiak hori entzutean urpera joan zen. Denbora labur batean itzuli zen, bere urrezko orrazia eta guzti. Orraziarekin ilea orrazten hasi zen. Baserritarrek ez zuten pazientzia handiegirik eta lamiari mugitzeko eskatu zion. Lamiak eskua erakusteko eskatu zion, eta hala egin zuen. Oso aurpegi arraroa jarri zuen andeñoak. Pentsakor jarri zen, eta denbora labur batean isilik egon ondoren honela esan zion:

—Astoak hiru puzker botatzen dituenen hilko zara.

Hau esan ondoren, gure gizona pozik bueltatu zen etxera. Hilabete pare bat igaro zen hau gertatu zenetik. Mandoak artean ez zuen puzkerrik bota, eta horregatik baserritarra oso pozik zegoen. Egun

batez mandoa hartu eta errotarantz abiatu zen. Bidean lehen puzkerra bota zuen mandoak. Nagusiari ez zitzaion axola, hiltzeko bi falta bait zitzaizkion. Handik egun batzuetara, nekazaria bere mandoarekin zebilen haruntz eta honuntz lanak egiten. Mandoak bigarren puzkerra bota zuen. Hau ikusirik, baserritarra larritu egin zen, eta eskuan zuen makila sartu zion ipurditik, hirugarren puzkerra bota ez zezan. Mando gizarajoa!!

Mendira joan zen egun batean, mandoaren atzetik zihoan. Mandoari puzkerra botatzeko gogoa etorri zitzaion, baita bota ere. Makila jaurti zuen izugarriko indararekin eta nagusiaren kopetan jo zuen. Lurrera bota eta zerraldo gelditu zen.

Mandoa etxera itzuli zen. Herriko jendea konturatu zen ez zela nagusia berarekin etorri eta bila joan ziren. Bilatu zutenean, hildakoen kutxa batean sartu zuten. Herria itzultzeko, bi bide zeuden: bata, motza eta lohitsuia zen. Bestea berriz, luzea eta garbia. Batzuek bide batetik joan nahi zuten, eta besteek bestetik. Eztabaidatzen ari zirela, kutxatik honela entzun omen zen:

—Ni astoa joaten zen bidetik joaten nintzen.

Honela bukatzen da kondaira edo aspaldiko gertakari hau.



BASAJAUN

Manipulazio genetikoaren aurrean, alternatiba biologikoak ere eskura ditugu, hala nola nekazaritza ekologikoa. Ekoizpen mota honek ez dauka zer ikusirik bizidunen patentekin, eta gainera ez ditu lurra eta gizakumearendako kaltegarriak izaten diren biozidak.

Ez da erreza gaur egungo ekoizpen motei aurre egitea, lehentasunak 'azkarren, handien eta merkeen' baitira, 'naturalen, hoberen eta osasuntsuen' irizpideen aurrean. Nekazaritza ekologikoa eskola ezberdinak, honen aldeko elkarteak, eta aldiakari zenbaitek alternatiba franko badaudela ziurtatzen dute, espezie begetalen garapen naturala asegura dadin.

Adibidez, sagar ekologiko ohizko baten aurrean bereizteko, identifikazio zenbait zigilu erabiltzera behartu dute, erregulazio kontseilu eta ekoizpen kontrolen bidez, eta bost bat daude egun. 'Demeter' nazioarteko marka da, nekazari, ekoizle eta banatzaile biodinamikoak bereitzen dituenak. Hain zuzen ere, arlo honetan badaude mota eta izen ezberbinetako nekazariak: bio, eko, biodinamikoak, organikoak, ekologikoak... honek, baina, ez digu axola, merkatura joatean zer aurkitu behar dugun ongi bereiztea baizik. Horretarako, hor doa zerrenda: Demeter, Unbela, Agrobio, Crae España, 'Aval de garantia Vida Sana' edo horietako edozein, baina behar bezala araututa, jakina.

Hala ere, esan beharrik ez dago gomendagarriena arbola bat hartzea eta bertako sagar bati koska egitea dela, hori baita, izan ere, osasuna.

Jenero Xumekoak

Iraultza

Martzelogradoko aferak gero eta korapilatsuagoak dira, ez bairik gabe. Pixkanaka-pixkanaka aintzineria goazelarik ere, bada garaia askoren ustez Iraultzaile on bat sor dadin. Azken iraultzaileekin sorte txarra izan dugu. Pausu motz bat eman eta segituan Kondaira etxera, patentatzen. Edozein nolanairekin aski daukate.

JEREMIAS ERRO

KAZKARROAN

M E A U B R H S I G M A
Z U P N A N I L O Z O D
N S T O U L T N E N P L
E I K I J I G X D I J A
R B X E I O I A K A O K
U R A D R O H B O D P I
G E R A O X A T U N U D
N U L A O L Z G L U A A
A M K H T A S M O L E I
R X A J O B E A U I N N
A B E D R I E J K R T I
M U T I L O A B E I T I

LETRA ZOPA

Aurki itzazu letra zopa honetan Arangurengo ibarra eta udalerrira osatzen duten herrien izenak. Izen hauek ezker eskuin, eskuin esker, goitik behera, behetik gora eta diagonalean irakurrita agertuko zaizkizu.

Zaharrak berri

Zakurren biguliñe hiretzat!
Hoa pikutara!-ren parekoa.
Ultzama

Denda baten atean uzten du emakume batek txakurra. Mutiko bat hurbiltzen zaio, eta eskua milikatzen dio. Haurra orroaz hasten da.

—Zer, ausiki hau? — galde-tzen dio andereak.

Bizi Bizian

Ruandatik ihesi atera behar izan zuen otsailean Jose Javier Etxeberria mediku goizuetarrak, bertako ospitale batean bost urte eman eta gero. Gerrak harrapatu zuen Medicus Mundik bertan

zuen proiekturik nagusienetakoa, baina Afrikan gertatzen denari buruz ikuspuntu zuzena izateko baliagarria izan zaio Etxebarriari. Euskalerrria Irratian izandako elkarrizketaren laburpena da hau.

Afrikatik ihesi

P. U. / IRUNEA

Pasa den otsailaren 20an sortu zen berria. Medicus Mundi Gobernuz Kanpoko Erakundeak Ruandan zuen eritetxea bertako Armadak bahitu eta lanean jarduten zuten mediku eta sendagileek hanka egin behar izan zuten. Bertako zuzendaria Jose Javier Etxeberria goizuetarra zen orduan, eta hasieran ospitaletik 40 kilometrora dagoen Ruli herrian errefuxiatu zen Marian Aranaz emaztearekin eta Patxi urte t'erdiko semearekin. Atzean, material franko, eraikuntza hondaturik, gaixoak sakabanaturik, batek daki non...

«Gauza asko hondatu dira, eta han eman genituen ondorengo egunetan lana alferrikakoa izan ote zen galdetzen genion geure buruari, baina nik uste dut ezetz, burututako lana han gelditu da, eta erakutsitakoa eta sendatutako jende guztia ere hor dago». Jose Javier Etxeberriak, behin Nafarroan, eritetxea berriro altxatuko den esperantza dauka, «urtebete edo bi urteren buruan, dena lasaitzen denean», baina itzultzeko gogo handirik ez daukala onartu du. «Bost urte eman ditut han, eta azken biak oso gogorrak izan dira. Nahikoa da neretzat».

Dena astelehen batean hasi omen zen, otsailaren hasieran, egoera askoz ere lehentxago itsusten hasia bazen ere. «Zerbait sumatzen genuen giroan, hor zeuden arazoak ezin zirela moldatu, eta azkenean lehertu egin zen egoera. Hilketa aukeratu batzuk izan ziren, politika eta ekonomia jendea, eta azkenean gerrila inguratu eta oso gertu azaldu zen». Etxeberriak azaldu duenez, hango taldeak lauzpabost pertsonakoak dira, oso ongi armatuak eta mugitzeko izugarritzko ahalmenarekin. «Egun batean ospitalera heldu, eta jende guztia handik abiatzen hasi zen, gerrila inguruan zegoela eta. Azkenean, eritetxean bakarrik gelditu ginen, gaixo guztiekin. Armada ez zen, ordea, inon agertzen. Bost egunen buruan azaldu zen, azkenean, eta ospitalean finkatu, luebaki eta guzti. Orduan hasi zen gerrila ospitalearen kontrako eraso, eta alde egin behar izan genuen».

pitaletara eraman behar izan zizuten. «110 gaixo genituen ene hartan ospitalean, eta trasladoo oso gogorra izan zen».

Nembako ospitalea Nafarroako Medicus Mundiren proiekturik garrantzitsuenetakoa da, eta 250.000 biztanleko lurralde oso bat hartzen zuen. «Han gehien harritzen zaituen dagoen jende kopuru handia izaten da. Auzo guztiak etxez beterik daude, eta etxe bakoitzean sei edo zortzi lagun bizi dira. Urteko soldata 30.000 pezetakoa izaten da, eta horrekin moldatzen dira, hala ere». Ospitalean, 20 milioi pezetako aurrekontuarekin, HIESa, malaria eta beste hainbat gaixotasun tratatzen zizuten, baina lan egiteko modua ere bertako egoerara egokitua zela azaldu du Etxeberriak. «Hemen tresna eta baliabide handiak daukate zentroek, baina han gehiena eskuekin egiten zen. Hala ere, lan handia egiten zela uste dut».

Medicus Mundi erakundearen 92ko txostenean Nembako ospitale honen garrantzia azpimarratzen zen, eta Ugandatik etorritako tutsiek —historikoki bertako leinu agintaria, nahiz eta egun oposizioan egon— sortutako egoera iskanbilatsua nabarmendu. Lurralde osoan bizi zen egoera zailak, halaber, errefuxiatuen kopurua izugarri handitu zuen, eta egun, 350.000 lagun inguru bere bizitokitik kanpo bizi dira. Horietatik asko Nembako ospitale inguruan.

«Mendebaldeari gatazka interesatzen zaio»

P. U. / IRUNEA

Ospitalearen gertakiaz gain, bost urte hauetan Afrikaz eta bertan gertatzen denari buruz ikuspuntu oso garbia eta zuzena eskuratzeko parada izan du Jose Javier Etxeberriak, eta bere gordintasun osoz azaltzen du bertako gerretan Mendebaldeak duen erantzukizuna.

«Ruandan bi leinu daude: gehiengo den hutua (% 80 inguru) eta tutsia (% 15 inguru). Azken hauek, baina, beti izan dute agintea Ruandan, duela 30 urte, independentziarekin, galdu zuten arte. Ez dira, baina, sekulan ohitu, berez oso harroak eta boteretsuak baitira, eta gerrila agin-

tea berreskuratzeko lehia besterik ez da».

Bi taldeen atzetik, Etxeberriak dioenez, Mendebaldeko nazioak daude, eta hutuek Frantziaren sostengua dute, eta tutsiek Ingalaterra eta EEBBena. «Frantziarren sostengua izan ezean, aspaldian eroriko ziren hutuak. Tutsiek izugarritzko botere ekonomikoa daukate, eta beren asmoa da Ugandan, Ruandan, Burundin eta Zaireko zati batekin inperio handi bat egitea, baina, jakina, Mendebaldearen interesekin egin dute topo. Izan ere, Ruandak ez dauka berez interesik edo aberastasun handirik, baina inguru guzti horrek garrantzi geoestrategiko handia dauka».



Horretaz gain European bereziki bizi den immigranteen arazo larria dago, eta goizuetar honen ustetan, hor bertan ere badago interesa gauzak iskanbilatsu izan daitezen. «Mendebaldeak izugarritzko beldurra dio Afrikari, bertako jendea langile eta gaitasun handikoa baita. Horregatik, nere susmoa da ez ote diren nahita mantentzen ari egoera gatazkatsu hauek, haien artean, elkar hiltzen jarrai dezaten».

HIESDUNAK % 30 HIRIBURUAN

Horri gehitu egin behar zaio inguru osoan larria den HIESaren arazoa. «Ruandako hiriburuan bertan HIESdun jendea % 30 da, eta ikaragarria da zenbat sufritzen duten, ez baitaude hemen dauden baliabideak. Gainera, gaitza gogor ukitzen ari da goi mailako lanpostuak bete behar

dituztenak». Bere esanetan, gaitzaren bide ohizkoena prostituzioarena da, eta orain arte horrelako ohiturarik ez bazegoen ere, goi mailako jendearen artean hedatua dago aspaldi honetan. «Prebentzio kanpainak egin egiten dira, baina afrikar batentzat oso zaila da preserbagailu bat jartzea, mentalitatea zeharo desberdina baitu».

Han bizitako guztia, nolana ere, «oso aberatsa» izan zaiola aitortu du Etxeberriak, eta gauzak bere neurrian baloratzeko bide eman zaiola azaldu du. «Hona etorri eta harrিতuta gelditzen zara inportantzia gutxiko gauzei zer-nolako garrantzia ematen zaion, benetan inportatzen duena ahaztuz. Nere ustez, indar guztiak behar dira erabili elkarri poza ematen eta arazo gutxiago izaten».

GAIKOEKIN AUTOETAN IHESI

Ateratzeko arazorik handiena bertan zeuden gaixoak ziren, eta oinez ibiltzeko gai zirenak etxera bidali, eta gaixoenak autoetan sartu, eta beste os-

Jesus Jaimerena

..... Apaiza

Laxoaz aritzen diren orok Jesus Jaimerena Lekunberriko apaiza aipatzen dute nahitahiezin. Iruritakoa sortzez, 1958an hasi zen antzinako pilota joku hau

berriro piztu nahian eta bere ahaleginek urte gutxiko segida izan bazuten ere esan daiteke berari esker, aurten ere, joan den igandean hain zuzen, hasi dela Laxo Txapelketa.

«Laxoa ez da galduko»

A. BARANDIARAN / LEKUNBERRI

EGUNKARIA.— 1958 aldera hasi zinen Iruritan laxoaren aldeko lanean, baina aurretik ere ezagutzen zenuen ongi jokoa. Nola-koak ziren garai haiek?

JESUS JAIMERENA.— Ni Iruritako laxoa plazako bazterrean jaioa naiz, eta, beraz, txiki-txikitandik ezagutzen dut. Nere aita zena aritzen zen pixka bat, eta goantea bazegoen etxean. Ahal nuenean neronek hartzen nuen. Gainera, oporretan, Elizondon, Arraiozen, Lekarozen izaten ziren partidak eta gehienetan, joaten nintzen ikustera. Herriak herrien kontra edo haranen kontra izaten ziren eta partida handienak Baztan Errekaren kontra izaten ziren.

EGUNKARIA.— Hala ere, beti aritu izan dira herri berberak: Baztanen Arraioz, Irurita, Lekaroz, Elizondo, eta Malerrekaren Doneztebe, Donamaria eta Oitz. Zergatik ez da zabaldu beste herritara?

JAIMERENA.— Ez bakarrik ez da zabaldu, baizik eta murriztu ere egin da. Nik Arizkuneren ezagutu izan dut jendea jokatzeko poliki. Erratzun ez dut ezagutu baina plaza bazegoen. Ezker paretako frontona itxi zutelarik orduan desegin zen plaza. Berdin gertatu zen Sunbillan eta herri askotan. Jokoa ez da erreza, eta estalkirik gabeko plazek, nahitahiezin, murrizten dute aritzeko aukera. Egun batzuetan bakarrik ari zaitzke, eta bitartean plaza estaliak denek ikusten genituen gauza handi bezala.

EGUNKARIA.— Aranotik itzuli zinen Iruritara apaiza, eta ordu-rako arras galduta zegoen laxoa. Nola bururatu zitzaizun berreskuratzea eta horren alde lan egitea?

JAIMERENA.— 1958an itzuli nintzelarik, zazpi edo zortzi urte ziren laxoa galdua zela, eta beraz, jendeak oraindik gogoratzen

zuen. Nere barne muinetan neraman nik joko hori, eta beste plazarik ez zegoelarik, bururatu zitzaidan laxoa berriro piztea. Mutiko eta gazteek berehala erantzun zidaten baietz, asko behintzat lehen aritutakoen semeak ziren, tresnak ere han zeuden, eta franko erreza izan zen, beste zenbait herritan —Arraioz, Donamaria, Oitz— iraun egin baitzuen. 1961ean egin genuen lehengo txapelketa, baina 1964ean, ekipoak berriro murritu ziren, eta finala Irurita A Irurita Bren kontra izan zen. Bazirudien ez zela gogorik beste herrietan, eta txapelketak ez zuten aurrera atera, nahiz eta herrietako festetan partidek iraun. Orduan nik jo nuen joko-garbi eta errebote aldera.

EGUNKARIA.— Etsi zenuen, beraz?

JAIMERENA.— Bai, etsi nuen, baina han utzi nituen gauzak beste eskuetan, eta horiek, Laxoa Elkartearen bidez, piztu dute berriro. Beti jarraitu zuten jokatzeko Arraiozen, Donamaria eta Oitzen. Hor ez da eten sekulan. Hendaian ere saiatu ziren berpizten, baina azkenean Malerrekaren eta Baztanen berriro eutsi diote.

EGUNKARIA.— 1981etik aurrera berriro txapelketak egiten dira, eta inoiz baino jende gehiagok hartzen du parte, baina ematen du ez dela mamitzen, ez dela zabalitzen.

JAIMERENA.— Nik uste dut jokoa bera ez dela erakargarria, ez dela ikusteko. Maite duenak ulertzen du, baina ikusgarria ez da. Tantoak oso motzak izaten dira, eta pala motza, eskuzkoan, askoz gehiago irauten du tantoak.

EGUNKARIA.— Eta ez da inoiz saiatu beste herrietara zabaltzen, exhibizioen bidez, edo?

JAIMERENA.— Egin izan dira, baina lekua da oztopo nagusia. Uitzin bertan badago plaza bat, baina aspaldian ez da erabiltzen. Hemen egin zen exhibizioa duela



Lekunberriko Apeztearen aurrean.

A. B.

bospasei urte, eta jendea gelditu zen: 'Baina, zer da hori?'. Arauak ere oso desberdinak dira, eta ezagutzen ez duenarendako zaila da.

EGUNKARIA.— Laxoa Elkartekoekin, nolahi ere, baduzu harremanik. Itxaropentsu eta gogoz daudela dirudi.

JAIMERENA.— Beren gogoia da behintzat dagoen lekuan mantentzea. Zabaltzea gehiago? Eskatu diete, eta Alduden, Saran,

egin izan dituzte, baina jendea hotz samar gelditzen da.

EGUNKARIA.— Hasieran soropiletan jokatzeko laxoan, mendi tartean zeuden sorotan. Oraindik gelditzen al da horietako bat?

JAIMERENA.— Orduan, nonbait, jendeak jokatzeko zuen edozein lekutan. Behar zen dibertsioa, eta herrira ez ziren jaisten. Orduan, han bertan, baserri tartean, aurkitzen zuten soropil bat, leku ze-

lai samarra, eta paretik gabe, deus gabe, alde batetik bestera aritzen ziren. Orain, baina, ez da horrelakorik gelditzen. Orain belarra edo iratzea izango da.

EGUNKARIA.— Esan ohi da hau izango dela pilota motarik zaharrena.

JAIMERENA.— Laxoaren lehendabiziko erreferentziak XIV. mendekoak dira, baina zaharrena eskuz izango zen, eta seguruena alde batetik bestera arituko ziren. Gero, eskuan mina hartzen zelako defentsa bezala eskularrua hartuko zen. Eta defentsa horren bidez indar handiagoa emateko, eskularrua handitu egingo zen. Laxoaren lehendabiziko erreferentziak XIV. mendekoak dira.

EGUNKARIA.— Beste garaietako gauza gehiegi iraun ahal izateko...

JAIMERENA.— Jokoa bera da oztopo nagusia. Pentsa, aritzen ziren ezker paretatik gabe, belarran... Aritzen zirenak artista handiak ziren, meritu handikoak, ez baitzuten defentsarik eta horretan aritu garenok maite dugu asko jokoa.

EGUNKARIA.— Ezkor samarra zara jokoa dagokionez...

JAIMERENA.— Nik uste dut laxoak iraunen duela Tiburzio Arrastoak eta horrelakoek irauten duten bitartean. Jendeak maite ditu lehenagoko ohiturak, baina gauza bat da maitatzea, eta bestea ahaleginak egitea ohitura horrek iraun dezan. Hori zailagoa da.

EGUNKARIA.— Laxoa galtzen bada, jokoa baino zerbait gehiago galduko dela uste duzu?

JAIMERENA.— Nik uste dut baietz, baina ez da galduko. Nik piztu nuen bezala, gero ere eternaldi bat izan zen, eta gero berriro piztu zen. Galtzen bada berriro, piztuko da berriro ere. Jendak maite ditu lehenagoko ohiturak. Orain, ez du indar handirik hartuko, baina piztuko da berriro ere.

NOSKI JATOR

ZVLDI EROA

